



AKTA

2019ko maiatzaren 21ean Udal Batzarrak buruturiko ez-ohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta gainontzeko hamar korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

1.- Udalbatzarrak 2019ko urtarrilaren 31n eta martxoaren 28an buruturiko saioen aktak onartzen dira aho batez.

2.-2019ko aurrekontu aldaketa.

Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik aldeko sei botoekin eta kontrako bost botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Indarrean dagoen 2019ko Udal Aurrekontuaren barnean, kredituak aldatzeko 2019-KALD-000001-00 espedientea onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkez ahal daitezen; horrelakorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betirako onartutzat emango dela zehaztuz, erabaki gehigarririk gabe.

3.- Toribio Alzaga 14ko lur zatiaren lagapena onartzea.

P. sendiak etxe bat zeukan eta etxe berri bat egiteko baimenean baldintza bezala gelditzen zen lur zatia udalari lagapen moduan ematen. Udalak erabiltzen utzi izan die, baina lagapena formalizatzea komeni dela eta, horregatik, udal batzarrari proposatzen zaion lagapena onartzea eta Alkatea baimentzea beharrezko dokumentuak sinatzeko.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Toribio Alzaga 14ko lur zatiaren lagapena onartzea. Ekintza honetan, lagapena egiteko beharrezko segregazioa onartzen da.

BIGARRENA.- Alkatea ahalbidetzea Toribio Alzaga 14ko lur zatiaren lagapena onartzeko beharrezko dokumentuak sinatzeko.

4.- Zestoako Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa dokumentua, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri eskolari dagokiona. 2019ko apirilaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren akordiora egokitutako testu bateratua.



ZESTOAKO UDALA

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Zestoako plenamenduko arau subsidiarioen aldaketa dokumentua Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezina eta Sastarrain baserri eskolari dagokion dokumentua, 2019ko apirilaren 9ko diputatuen kontseiluaren akordiora egokitutako testu bateratua onartzea.

BIGARRENA.- Zestoako Plenamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain baserri eskolari dagokion dokumentu onartua, izapidetutako espediente administratiboarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira helaraztea.

5.- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zestoako Ualaren arteko hitzarmena, mendekotasun presatazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren aldeko jarraipena egiteko.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zestoako Udalaren arteko hitzarmena, mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren aldeko jarraipena egiteko onartzea.

BIGARRENA.- Alkatea ahalbidetzea hitzarmena sinatzeko.

6.- Erregu eta galderak

M.A.k hartu du hitza, eta lehenik eta behin, aipamen bat egin nahi izan du, aste honetan Aizarnan lan istripuan, basoan lanean ari zela, gertatu den lan istripuari buruz. Urrestillan bizi baina lehenago Zestoan bizi ote zen aipatu du. Zoritxarreko gertakaria dela gehitu du eta administrazioaren hutsuneen ondorioa dela. Bere doluminak adierazi ditu familiarekiko. Prebentzioan lan egin behar dela eta gauzak hobeto zaindu behar direla, hutsune handiak baitaude.

Bestalde, azken plenoa dela gogorarazi du, askotan egoera deserosoak eta tentsiodunak izan direla eta berak autokritika egiten duela adierazi du, beti ez duelako jarrera egokia izan. Eskerrak eman dizkie, gehienekin, kalean herritar bezala konportatzen jakin izan dutelako.

Alkateak dio legegintzaldia 2019an Zestoa hobeto bat uzteko asmoz hasi zutela, eta lortu dela uste duela akats guztien gainetik. Bere taldeari eskerrak eman nahi dizkiola gehitu du, eta orain taldean ez dauden Montse eta Karlosi ere bai. Bestalde, publikoki udaletxeko langile eta teknikariei eskerrak eman nahi dizkiela adierazi du, egin duten ahaleginagatik, askotan baliabide gutxirekin izan arren. Gutxitan elkarrekin arranean eta askotan sokatiran ibili izan direla gehitu du. Oposizioak ere lan asko egin duela aitortu du. Hurrengo zorterik onena opa diela adierazi du.



ZESTOAKO UDALA

Besterik gabe eta beste gairik ez dagoenez arratsaldeko 20:19ak direnean amaitu da batzarra.